

NAFARROAREN KONKISTA BERRIKUSTEN

JARDUNALDIA

Urriaren 8an, Iruñean
JASO Ikastolan



©kukuxumusu

DATA 2011ko Urriaren 8an
NON JASO Ikastolan, Iruñean
ORDU KOPURUA 11 ordu

ORDUTEGIA 09.00-13.30 / 16.00-18.30
IZEN EMATEA: www.ueu.org web gunean
2011-09-12tik, 2011-10-01era. DOHAINIK



NAFARROAREN KONKISTA BERRIKUSTEN: 1512-2012

Iruñea, 2011ko Urriak 8.

AURKIBIDEA

AURKEZPENA ETA EGITARAUA	2
Eugenio Arraizaren sarrera hitzaldia.....	6
IDATZIZKO EKARPENAK	
Roldan Jimeno: <i>Konkistaren Justifikazio Juridikoa</i>	9
Santiago Leone: <i>Konkista Nafarroako Imajinarioan</i>	11
Emilio Majuelo: <i>Arturo Campion eta Nafarroako Konkista</i>	15
Patxi Larrion: <i>Nafarroako Konkista Literaturan</i>	19
Patxi Abasolo: <i>Konkista eta Memoria Historikoa</i>	22
MAHAINGURUA: “Konkista gaur egungo politikatik”	
Joseba Asiron.....	24
Floren Aoiz.....	27
Bixente Serrano.....	30
ERANSKINAK	
Aurkezpena: Roldan Jimeno.....	33
Aurkezpena: Patxi Larrion.....	34
KREDITUAK ETA BAIMENAK	37

AURKEZPENA

Nafarroako independentziaren galeraren hasiera 1512an hasi zen, Nafarroako historiaren datarik garrantzitsuenetakoa, Fernando Katolikoak Nafarroa konkistatu zueneko. Konkista eta bere ondorioak literatura ugari eta eztabaida sutuak eragin duen gaia da. 1512ko uztailetik irailera bitartean, Albako dukeak Nafarroa konkistatu zuen. Urriatik abendura bitartean, Nafarroako erresuma berreskuratzeko lehenengo ahalegina egin zen. Nafarroako tronuan berriz ere legezko errege-erreginak jartzeko 1516ko martxoan eta 1521eko maiatzetik ekainera izan ziren saiakerak bezala, 1512ko honek ere porrot egin zuen. Iritzirik zabalduenaren arabera, armek beharturik beretu zuen Gaztelak Nafarroa, batere sinesgarriak ez ziren arrazoi juridikoak erabiliz eta Julio II. aita santuaren bulda eztabaidagarriak baliatuz. Konkistaren ondoren Nafarrek ikusi zutenean Gaztelari lotzeko prozesua itzulezina zela, euren bideari ekin zioten, "nazio" kontzientzia galdu gabe.

HELBURUAK

Dibulgaziotik haratago, azken 30 urteotan historiografiak Nafarroako Konkistaren inguruan egin duen ekarpenaz jardun. Ikerkuntzarekin zerikusi zuzena ez duten hainbat gertakariez aritu, hala nola, Nafarroako Konkistak sortarazten dituen diskurtsoak eta literaturan izan duen isla.

EDUKIAK

Nafarroako konkista militarra, Konkista burutzeko Gaztelak erabiliko dituen argudio juridikoak, Arkeologia, Konkistaren inguruko historiografia, Konkista egungo ikuspegitik. Literaturan utzitako arrastoa.

METODOLOGIA

Jardunaldia, egun bakarrekoa. Goizez adituen ekarpenak eta arratsaldez mahaingurua. Beti ere, bai goizez bai arratsaldez eztabaidarako tartea zabalduko da.

NORI ZUZENDUA

Historialariei; adituei eta gaian interesa duen edonori.

EGITARUA

9:00etan.

Material banaketa eta harrera

9:30etan.

Aurkezpena. Eugenio Arraiza, UEUko bazkide eta Geronimo de Uztaritzeko kidearen eskutik

9:50etan.

Roldan Jimeno Aranguren (UEUkidea)

Historian lizentziatua eta Zuzenbidearen Historian irakasle Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

“Konkistaren justifikazio juridikoa”

Konkista batere sinesgarriak ez ziren arrazoi juridikoak erabiliz eta Julio II. aita santuaren bulda eztabaidagarriak baliatuz gauzatu zen. Konkista justifikatzeko erabili ziren argudio juridikoak aztertuko dira.

10:10etan.

Juantxo Agirre Mauleon (UEUkidea, Arkeologoa. Aranzadi Z.E.)

Konkista eta arkeologia: Amaiurko gazteluaren indusketak

Aranzadi Zientzia Elkarteko kidea, Amaiur gazteluko indusketa zuzendaritzan dihardu. Historia eta Geografian lizentziatua.

“Amaiurko gaztelua. Nafarroako konkista arkeologiaren ikuspegitik”

Duela bostehun urteko gertakizunak garaiko idatzizko dokumentuen bitartez aztertu dira eta gaurko ikerlariak ondorio ezberdinak atera dituzte. Arkeologiak badu zer esanik?. Amaiurko gaztelua konkistaren ikurra bihurtu da eta duela sei urtetik ikerlan talde batek bere historia argitzen ari da.

10:30etan.

Santiago Leoné Puncel (Historian doktorea)

Hiru liburu argitaratu ditu: Los fueros de Navarra como lugar de la memoria, Euskal Herri imaginario baten alde, Euskal Herria 19. mendeko bidaia-liburuetan.

“Konkista Nafarroako imaginarioan”

1715ean, Francisco Alesonek idatzitako Anales de Navarra liburukoteari paratu zion hitzaurrean, Matias Izcue doktoreak adierazi zuen Nafarroaren konkista zela historialari batek jorra zezakeen “gai zailena”: “el asunto más difícil que se pueda ofrecer a la historia”, jatorrizko bertsioan. Nafar historiografiak, Izcueren garaikoak, aitzinekoak eta geroagokoak, argi erakusten du arrazoia zuela.

10:50etan.

Eztabaida tartea

11:30etan.

Kafe ordua

12:00etan.

Emilio Majuelo Gil (Historialaria eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea)

“Arturo Campion eta Nafarroako konkista”

Nafarroako konkista nola ikusi zuen Arturo Campión historialariak garrantzia du, alde batetik, berak historia inguruan zer motako hausnarketak egiten zituen jakiteko, eta bestetik, konkista berak bere lan historikoetan zer papera bete zuen aztertzeko.

12:20etan.

Patxi Larrion Galdeano (UEUkidea)

Historian lizentziatua, hamazazpi lan argitaratuak ditu

“Nafarroako konkista literaturan”

Historia eta bereziki krisialdiak sormenaren eskenatoki izan dira gure literaturan. Ez da laburra Konkistaren gaia jorratu duten literatur lanen zerrenda. Hitzaldian, bestalde, galdera bati erantzuten ahaleginduko gara. Ba al du historiatik Nafarroaren konkistaren inguruko literatur sormenak?

12:40etan.

Patxi Abasolo Lopez (UEUkidea)

Historia irakaslea eta *1512-2012 Nafarroa Bizirik*-eko kidea

Konkista eta memoria historikoa

Nafarroak memoria historikoa berreskuratu behar duela diogunean, herri zapaldu honek historikoki pairatu behar izan duen inbisibilizazio prozesua gainditu beharra dagoela esan nahi dugu. Garaituen memoria, jazarpena eta akulturazioa izango ditugu aztergai, beti ere gaurko Nafarroaz hausnartzeko lagungarria izango direlakoan.

13:00etan.

Eztabaida tartea

13:30etan

BAZKARIA

16:00etan

Mahaingurua: **KONKISTA GAUR EGUNGO POLITIKATIK**

Joseba Airon Saez (Historian doktorea)

Arte eta Historian irakaslea.

“Konkista gaur egungo politikatik, mahaingurua”

Ohiko historiografia ofizialaren azken uneko planteamendu faltsuak eta eztabaida zientifikoaren gertuko jarraipena. 2012ko planteamendu orokorra, lehia hori gainditzeko garrantzia, eta geroko 1516, 1521, 1522ko aurreikuspena.

Floren Aoiz Monreal (Historialaria)

Idazlea, gazte mugimenduan nahiz politikagintzako hainbat esparrutan ibilitakoa. Ikerketa historikoari lotutako bi liburu argitaratu ditu.

“Konkista gaur egungo politikatik, mahaingurua”

Euskal Herrian garrantzia handia ematen baldin bazaio iraganari, ia obsesio bilakatzen da historiarekiko kezka Nafarroan. Nafarroa bera eta beste lurraldeekiko harremanak lotuta agertzen dira, sarritan, iraganaren inguruko errelato eta irakurketez. Gauzak honela, 1512ko erasoaren urteurren borobil honek aukera ederra eskaintzen digu orduko gertaerak aztertu eta iragan denboran nahiz orainean egin diren interpretazioak aintzat hartzeko.

Bixente Serrano Izko (Historialaria)

Garai batean politikan ibilia, Historia eta batik bat Nafarroako historiaren irakasle izana gero hamasei urtetan. Esperientzia hori oinarri, *Nafarroa, historiaren hariak* dibulgazio liburuaren egile.

“Konkista gaur egungo politikatik, mahaingurua”

Historia, gaurko edo, berdin dena, unean uneko politikatik ikusita; bi arloen arteko josturak, mugak, dependentzia edo independentzia mailak, interdependentzia azken finean.

17:30etan.

Eztabaidarako tartea

18:30etan.

Jardunaldiaren amaiera

Moderatzaile bat goizeko jardunerako, beste bat arratsalderako:

Jurgi Kintana, Historian doktorea da. Idazle lanetan ere aritzen da eta UEUko Historia sailburua da.

Idoia Arrieta, Historian doktorea eta UEUkidea.

Sarrera: Historiaren izaera fisikoa

Eugenio Arraiza

Errenazimenduan, gure arbasoek, zientzien eta letren artean egin zuten binako banaketa salomonikoan, Historia Filosofiaren eta Literaturaren alboan kokatu zuten: *Filosofía y Letras* tituluak. Zientziak edonork egiazta ditzazkeen datuetan daude eraikiak. Letrek eta arteek, aldiz, ondorioak ateratzeko aski dute azaleko datu eta gertaerekin, inpresioekin, sentimenduekin. Aparrak nonbait.

Sumendi baten gainezka edo lubizia deskribatzeko, letrak erabili behar ditugu, noski, baina errealitatea, gertaera fisikoa da sortzez, eta ondorio fisikoetan neurtzen da. Era berean lur baten konkistak, espazio fisikoaren jabetza eta kudeaketa emanen dio irabazleari. Ondorioak ez geologikoak bakarrik, fisikoak ere izanen dira, betiere ikusgarriak lurraren antolaketan edo desantolaketan. Biztanleak ere, izatez, fisikoak izan dira, gara.

Lur baten konkista, estatu baten konkista izanik, “*nortasunaren*” konkista ere bada, konkista *moralaren* hasiera edo burutzea. Berez, subjektu legalak birrinduta, subjektu fisikoak menperatuta geratu ziren Nafarroako kasuan. Morala ez da birtuala, izaera fisikoaren nanologia baizik. Gaur fenomeno baten eragin *moral*a neurobiologiaren bidez, korronte elektromagnetikoak medio, fisikoki neur dezakegu

Tamalez, letren zamapean egon da Historia mendez mende eta inertzia horrekin heldu gara gaurdaino. Paleontologiak eta Arkeologiak esnarazi gaituzten arte, idatzitako paperetan izan dira historiaren agiriak, datuak edo balizko datuak. Egoera honen aurrean, paperezko historiaren balioa zalantzan jarri gabe, historialarien ogibidean elikadura nagusi eta ia bakarra izan da idazkera, papera.

Historiaurrea deitzen zaio idazkera baino lehenagoko Historiari. Behar bada hobe, *Gezur aurreko* aroa izendatzen badugu. Filosofia eta Historia Fakultateetan lizentziadunok, ikasitakoaren bidetik saiatu gara balizko datuekin Errelatoa eta benetako Kronika iruten. Beraz, sortzez, jitez eta fruituetan guztiz literarioa izan da gurean irakatsitako historia.

Baina XXI. mendean ordea, esan bezala, gure zentzumen fisikoaren ekarpenak zalantzaszkoak direla ikasiak gaude. Mundu birtuala inoiz baino gehiago erabiltzen dugun arren (filmak, albistegiak, erreportaiak, muntaiak,...), txiki txikitatik hezi gaituzte mundu horiek errealitatetik bereizten. Giro honetan, Historia zientzien alorrean kokatzen ez bada, ezer gutxi erakutsiko dio irakasleari eta gizakiari.

Txipa aldatu behar dugu iada: Zientzien historia idaztetik zientzia historikoen (arkeologia, geologia, genetika, neurobiologiako...) emaitzak eta garapena jorratzera, hedatzera, adieraztera iritsi behar dugu, idazkera baino euskarri bermatuagoetako historiaruntz. Galileo aurreko sinismenetatik, zientzien bitartez esperimintatu eta neur daitezken emaitzetara jauzi egin behar dugu.

Adibide xumea. Sinai Mendiko eskenatokian gertatu zenaren azterketa zientifikoak gaurko ikerlarioi ez dakarkigu hamar mandamenduen mezu zerutarra, lurtarra baizik, alegia herri bat bazegoela. Mezu hau sinistu eta antolatuko zuen herriak, besterik ez.

Honelako ulermen eta ezagutza lortzen ez baldin badugu, nola oinarritu "bizitzaren irakasle" behar omen lukeen Historia (*maestra de la vida*) praktikara eramatea, gure bizitzen gidari den onartzea? Gure begien ikuspegiaren mugak tarteko, memoriaren ahuldadea dela eta, historiari zor zaion garrantzia emateko, zientzien sailean kokatu behar dugu, ez kontakizunetan. Ez tituluz, baizik sortzez, prozeduraz, azterketaz eta frogak eragindako emaitzetan.

Galdera datorkit burura: Hausnarketa hau polita da, sujerentea ere, baina zein da historiaren izaera fisikoa? Zer osagarri ditu?

Erantzuna: Bi osagai, bi faktore, biak fíisikoak behar ditu edozein historiak: Espazioa eta Denbora. Egia da bigarrenak ez duela materia erakusten, labainkorra zaigula, baina arrastoak uzten dituela argi dago, zahartzen nola ari garen ikusi besterik ez duzue nere zimurretan eta ahots urratuan.

Espazioa edo egia edo errealitatea, ez da existitzen ez Espazio ezezagunean ("inoren lurrean"...) ezta Denbora mugagabeen ere. Denbora eta toki zehatzik adierazten ez duen historia, errealitatetik at dagoen kontakizuna dugu, irudikapena, besterik ez.

Bigarren osagaia, *Denbora*. Historiagile zaharren eran momentu edota datak hutsak eta hotzak balira bezala, maizegi aurrekaririk eta ondoriorik gabeko gertakarizat bezala bildu ditugu. Paperezko istorio haietan murgilduta, arrazoi psikologikoak kudeatu edo ordenatu nahian ahalegindu gara, batzuen hondamenerako eta besteen onura fisikorako izan direla bazter utzita. Baina bat da momentuan gertatzen dena eta bestea *garatzen* dena. Denborak ernatutako puta dugu historia, atarramentu haundiko emagaldurik gaiztoa birginatatea aspaldi galdu duena. Gertaera puntualek ere garapen prozesu luze batean ondu dira eta haien ondorioek auskalo noiz arte iraungo duten. 1512an gertatu zena bereziki.

Nafarroako Erresumaren Konkistak, Euskal Herriko azken hondarrarena, espainiarrek eragindako Konkistaren aurrean jartzen gaitu. Orainean, ez iraganean. Fisikotu behar dugu gertatu zena, oraindik ere gertatzen ari zaiguna. Geure historiaren berri transmisioa egingo badugu Historiaren mamia *aurkitu* eta konkistaren mezua (ez paperezkoa) elikagai erabili behar dugu: Nafarroa indarrez konkistatu zuten, gertaera bortitza izan zen, fisikoa, alde guztietatik ikusita gainera. Gaurkoan ere izaera fisiko horren ondorio den errealitatean sakontzen saiatu behar genuke.

Amaitzeko: Aurreikusitako egitarauan sartu baino lehen, fisikotasunaren aurrerapenerako ohar hauek kontutan hartuta, mesedez!!!, nabarmendu nahi dut, jokoan bi kontakizun mota ezberdin ditugula historiaren kudeaketan eta gaurko eztabaidan ere: Historia Akademikoa, ikasketak helburu dituen edota Herriaren Historia, herrigintzarako bidea. Nire galdera: bidelagunak edo elkarri bizkar emanez?

Zuena da hitza.

Konkistaren justifikazio juridikoa

Roldan Jimeno Aranguren

Iritzirik zabalduenaren arabera, armek beharturik beretu zuen Gaztelak Nafarroa, batere sinesgarriak ez ziren arrazoi juridikoak erabiliz eta Julio II. aita santuaren bulda eztabaidagarriak baliatuz. Nafarroa, ez zen Gaztelara era baketsuan anexionatu, eta ezta oinordetza-eskubideak betez ere, Aragoiko koroaren lurraldeekin gertatu zen bezala. Anexio hori armen bidez, sinesgarriak ez ziren arrazoi juridikoak erabiliz eta Julio II.aren bulda pontifikal polemikoetan oinarritutako justifikazio kanoniko bat baliatuz egin zen. 1512an aita santuak “*Pastor ille caelestis*” bulda eman zuen jakitera eta bulda horren arabera, Aulki Santuaren edo bere aliatuen aurka edota Luis XII.aren Frantziaren alde egiten zuen edonor eskumikatu egingo zuten:

Fernando Katolikoa konturatu egin zen Nafarroako errege-erreginak frantsesen alde jarri zirela eta, ondorioz, aipatu bezala, Aulki Santuari presioa egin zion, eta baita bere helburua lortu ere. Horrela, 1513ko otsailean bigarren bulda argitaratu zen, “*Exigit contumacium*” deitutakoa eta, bulda horren bidez, Joan Albretekoa eta Katalina eskumikatu zituzten: “Gure aurretiko Erromako Aita Saindu askoren zantzuei jarraikiz, ezen haiek errege eta enperadoreei, arrazoi arinagoengatik ere, zentsura berbera aplikatu zieten, aginte apostolikoarengatik eta eskumen osoz, Juan eta Katalina eskumikaturik, anatematizaturik, madarikaturik daudela eta zismatiko eta herejeei laguntza emateagatik errudun eta estatuaren eta betiko tormentuaren hobendun direla aldarrikatu eta adierazten dugu, eta errege titulu, ohore eta duintasunez desjabetuak direla, eta haien Erresumak, jaurerriak eta edozein ondasun publiko egiten ditugu, eta haien guztia haiez guztiez jabetu edo jabetuko direnek, gerra saildu eta justuenean eskuratu bezala, bere egin dezaten”.

Eliza usteldu horretatik zetorren eskomunikazio horrek, gainera, erregetzatik kentzea suposatzen zuen, Frantziako errege zismatikoarekin elkartu zirelako, aitasantutzaren aurka: “Juan eta Katalinari errege ohore, titulu eta dignitateak, bai eta Nafarroako erresuma, dukerriak, konderrriak eta bestelako jaurerri tenporalak eta edozein tokitan dituzten ondasunak eta haien gainean dituzten eskubideak kentzen dizkiegu eta publiko egiten ditugu erresuma, jaurerri eta ondasun guztiak eta horietako bakoitza”.

Eta gaztelatarren alde egiten zuen, handik aurrera Juan eta Katalina errege-erreginen fidelek harreman horiek apurtzeko: “Erresumako eta aipatu jaurerrietako eta haren

mugen barruko konderri, gotorleku eta gazteluetako eta lurreko gobernariak, gaztelaniakoak eta ofizialak, baita dukeak, markesak, kondeak, baroiak, nobleak, auzokideak eta biztanleak, beren dignitate, estatu, maila, ordena eta egoera edozein izanda ere, Juan eta Katalinarekin fideltasun zinaz eta gobernu, gaztelania, lanbide, zaintza, feudo, basailutza edo beste edozein gorazarrez loturik egonik haien menpeko direnak, Juan eta Katalinarekiko zin eta gorazarrea betetzeko edozein loturatik eta edozein fideltasun, obediencia eta mendetasunetik absolbituz eta, beherago idatzitako zigorren menpe, zeinetan aurka egiten dutenak egitatearengatik berberarengatik erortzea nahi baitugu, zorrotz aginduz hauek Burgos, Calahorra eta Tarazonako elizetan, edo haietako bitan, argitaratu eta hurrengo sei egunetan –horietako bi lehendabizikotzat, bi bigarrentzat eta gainerako biak hirugarrentzat eta azken terminotzat eta ohar kanonikotzat harturik– haien menpe dauden guztiei eta haietako bakoitzari Juan eta Katalinarenganako, edo haietako edozeinenganako, ohiko obedienciaetik aldendu daitezen eta aurrerantzean errege edo nagusi deitu edo erregetzat edo nagusitzat inola ere aitortu ez ditzaten, baizik eta, zismatiko eta heretikoak diren aldetik, ahal duten heinean, Kristoren gainerako fededunen komunitetik bazter ditzaten. Eta sei egunak iraganda Erresumako konderri, unibertsitate, hiri, gotorleku, gaztelu eta lur eta bestelako tokietako eta aipatu jaurerrietako aipatu pertsona berezi orok gure manu hau egiatan obeditzen ez badu, hemendik aurrera haren kontra eskumiku handiaren epaia ematen dugu idazki honetan eta, hiltzorian daudenak salbu, edozein indultu apostolikoren aitzakia izanda ere, Erromako Aita Sainduak bakarrik absolbitu ahal izango ditu”.

Konkistaren azalpenak ez ziren batere sinesgarriak izan eta, beharbada, horrek eragina izan zuen Nafarroako erakunde tradizionalak eta foruen sistema errespetatzeko orduan. Indar militarren bitartez, Pirinioetako erresumak amore ematea lortu zuten, baina, agian, “itundutako” eta “hitzartutako” amore ematea izan zen, kontuan hartu behar baita konkista zein baldintzatan eman zen, baldintza horiek, zalantzarik gabe, eragina izan baitzuten prozesu horretan. Nafarroa 1515ean gehitu zitzaion Gaztelako koroari, zuhurtzia handiz prozesu horretan etenaldi bat egin eta gero. Albretekoak berriro erregetzan ezartzeko ahaleginak behin betiko bukatu ziren Noainen, 1521eko ekainaren 30eko arratsalde hartan eta geroko Amairuko gazteluaren defentsan. Pirinioen hegoaldeko Nafarroa osoa, une horretatik aurrera, “egokitze”, “moldatze” eta “antolatze” fase baten sartu zen, Gaztelaren nagusitasunaren ondorioz sortutako egoera berrian.

Aferetan zailena

Santiago Leoné Puncel

Sarrera

1715ean, Francisco Alesonek idatzitako *Anales de Navarra* liburukoteari paratu zion hitzaurrean, Matias Izcue doktoreak adierazi zuen Nafarroaren konkista zela historialari batek jorra zezakeen “gai zailena”: “*el asunto más difícil que se pueda ofrecer a la historia*”, jatorrizko bertsioan. Nafar historiografiak, Izcueren garaikoak, aitzinekoak eta geroagokoak, argi erakusten du arrazoia zuela.

Zaila, dudarik gabe, inguruan gertatzen denari lotua egon delako beti: konkistaren historietan, maiz, interesgarriago izaten baita kontakizunari zentzua ematen dion testuingurua, narrazioak azaltzen duena baino. Ez kontatutakoa, haren inguruabarrak baizik. Izcuek aitzin-solasa idatzi zion lana, konparaziorako, ez zen salbuespena izan. Francisco Alesonek iraultza ekarri baitzuen Nafarroaren konkista *narratzeko* moldera, baina iraultza hori ezinezkoa izanen zatekeen, aitzinetik aldaketa inportante bat gertatu ez balitz Espainiako errege dinastian. Borboitarrek (Nafarroako errege-erreginen ondorengoak, alegia) Espainiako tronura ailegatuta, eta Austriarrak (Fernando Katolikoaren ahaideak, alegia) kanporatuta, posible bihurtu zen konkistaren kontakizunean ikuspuntua aldatzea, eta Juan eta Katalinaren figura berriz ere aldarrikatzea. Alesonen ondorioak, ordea, aurreko mendeetako historialarienak bezalakoak izanen dira. Geroago bueltatuko gara puntu horretara.

Aferetan zailena, konkistarena. Zaila, gainera, memento orotan. Gaur, atzo eta herenegun. Baina zaila, orobat, unean-unean zaila izateko arrazoiak diferente izan direlako, eta, anitzetan, gure garaiko oztopoak eta historia idazteko problemak iraganera proiektatzeko joera izan dugulako, bertzelako zailtasunik posible ez balitz bezala. Zaila, beraz, idazten, eta zaila, maiz, idatzitakoa ulertzen.

Eta zaila, erran dezagun deblauki, gaiak parte hartzea eskatzen duelako, batzuen alde eta berteen kontra agertzea ezinbertzekoa delako. Ezin neutrala izan konkistaz ari garelarik, ezin afera horretaz hotz eta objektibo idatzi. Horretan, beharbada, guk dugu problema handiena, erran nahi baita, historiaren zientifikotasunaren paradigmapean bizi garen historialariok. Historiak egia (datuetan oinarritua, agirietan xerkatua) helburu duela ikasi dugunok. Tira, badira gaiak (bisigodoen garaiko zergak, Erdi Aroko sukaldaritza, erromatarren hirietako estolderia), beren urrunean, historialariak zainetan odolik ez balu bezala lantzen ahal

dituenak. Nahi bada, dei diezaiozun objektibotasuna guretako inporta guti duten gai horiek tratatzeko manerari. Gainerakoetan, subjektibotasuna agertuko baitzaigu, baitezpada.

Hain zaila izanik, ez da, beraz, harrizkoa, hainbertze historialari Nafarroaren konkista saihesten edo ukatzen saiatu izana.

Bi errestituzio eta borondatezko entrega bat.

Nafarroa Gaztelari lotzeko manera konkista izan zela ukatzea ez da soilik 20. mendeko joera izan. Ukazio hori gaiaren inguruko historiografiaren hasieratik beretik agertzen zaigu. Are gehiago, erraten ahalko genuke, 16. mendetik 18.era bitarte, nafar historiografia konkista ukatzeko saio luze bat dela; edo, nahiago bada, nafar historialariak etengabe aritu zirela aitzakiak eta itzulinguruak bilatzen, Nafarroan gertatutakoari konkista ez deitzeko. Horri buruz, bi ohar: arestian, “*nafar* historiografia” eta “*nafar* historialariak” aipatu ditut. Haiena izan baitzen konkistarekiko kezka, eta ez kanpoko historialariena. Eta bigarren oharra: ukazio horren aitzinean, bi jarrera hartzen ahal ditugu. Deitoratzen ahal dugu hemengo historialariak historia bertze modu batean kontatu ez izana; edo saiatzen ahal gara ulertzen zergatik idatzi zuten historia idatzi zuten eran. Bigarren bidea hartuz gero, ikusiko dugu (nire ustez, bederen), 16, 17 eta 18. mendeetan ukaziora eraman zuten arrazoiak eta geroagokoak guztiz diferenteak direla, eta arras balio desberdina dutela.

Ikus ditzagun, labur-labur, bi adibide.

Oker ez banabil, Diego Ramirez Avalos de la Piscina izan zen konkista kontatzen edo laburbiltzen saiatu zen lehen historialari nafarra, 1534. urte aldera. Avalos de la Piscinak konkistaren bidez, errestituzio bat ikusiko du: Carlos I. arekin, “Nafarroako leinu ahantzia” (“*la olvidada divisa de Navarra*”, jatorrizko bertsioan) bueltatuko da erresumara, Frantziako dinastiak etorritik galduriko leinua hain zuzen ere. Ez genuke atzendu behar Avalos de la Piscina agramondarra zela. Bere *Kronikan* Labriteko Juan eta Katalina errege-erreginen gorazarrea egiten du, bai eta haien alde borrokan aritu ziren agramondarren aldarrikapena ere. Nolanahi den ere, azken orrietan, erregea izateko zilegitasuna aitortuko dio Carlos I.ari.

Zenbait historialarik ulertu dute Avalos de la Piscina errege berriaren zilegitasuna finkatu nahian zebilela, eta, bidenabarkoan, hura agramondarren alde lerrarazi. Nire ustez, Avalosek bi borrokagune izan zituen bere *Kronikan*. Gaztelan, Lopez de Palacios Rubios historialariak errana zuen Aragoiko Fernandok, Nafarroa hartutakoan, godoek lortutako Espainiako batasuna berriz ere ezarria zuela. Beraz, historialari horren ikuspuntutik,

konkistaren bidez, Fernandok berari zegokiola errekuperatu bertzerik ez zuen egin. Avalosek, “Nafarroako leinu ahantzia” solasera ekarri zuelarik, Gaztelan asmatu berte “errestaurazio” horri aurre egin nahi zion. Gaztelatik, godoen errestraurazioaren bidez, Nafarroako errege-erreginen zilegitasuna ukatu nahi izan zuten, konkista justifikatzeko. Nafarroan, Avalosek, bertzelako errestraurazio bat proposatu zuen, nafar errege-erreginen zilegitasuna onartu eta Carlos I.aren ganaino zeramana. Zer dela-eta? Konkista onartuz gero, Avalosek onartu beharko zuen erregeak nahi zuena egiten ahal zuela Nafarroako sistema politikoekin; Carlos I.a nafar leinuen jarraipena zela defendatuz gero, errege berriak, ordura arteko monarkek bezala, erresumako sistema politikoa nahitaez errespetatu beharko luke (teorian, bederen). Beraz, egoera politikoa kontuan hartuta (iduri zuen konkistak ez zuela bueltarik), eta Gaztelako historiografia zer erraten ari zen ikusita, Avalosek bere istorioa osatu zuen: konkistaren bidez, Nafarroako leinu ahantziaren errestraurazioa.

17. mendean, Garcia de Gongora y Torreblanca defendatuko du, bertzeak berte, nafarrek nahitara erabaki zutela amore eman eta bere burua Gaztelari entregatzea. Berriz ere, Avalosen kasuan bezala, diskurtso politiko baten aitzinean gaude. Garcia de Gongoraren testuan, diskurtsoaren ondorio politikoa zein izanen den baita inportanteena, eta ez kontatutakoaren egia.

Garcia de Gongorak idatzi zuen garaian, errestraurazioaren teoriak galdua zuen indarra, batez ere Aragoiko eta Gaztelako historialariek beren alde erabiltzen zutelako. Beraz, berte teoria baten beharra bazen. Garcia de Gongorak proposatu zuen, 1628an, bere *Historia apologética del Reino de Navarra* liburuan, honako hau: Nafarroako errege-erreginak eskumikatuak izan ondoren, nafarrek erabaki zuten amore ematea Gaztelaren aurrean. Beraz, tronuko dinastian aldaketa bat besterik ez zen gertatu; ez zen konkistarik izan. Dударik gabe, Garcia de Gongorak bazekien (historikoki) gezurretan ari zela, baina, erran bezala, politika interesatzen zitzaion. Gertatutakoa dinastia aldaketa hutsa bazen, orduan errege-erregina berriek ezin zituzten foruak deuseztatu, eta, aitzineko monarkek bezala, nafarren askatasuna errespetatu beharra dute (“*tienen la misma obligación que los demás sus predecesores de conservarlos en sus antiguas libertades*”, erranen du, hitzez hitz, Garcia de Gongorak).

Hurrengo mendean, Borboitarrek Espainiako tronura ailegatzearekin batera, Aleson kronista berriz ere errestraurazioaren teoriara bueltatuko da, lehenago aipatu den bezala.

Konkista berridatzi beharra.

19 eta 20. mendeetan, konkista deseroso izanen da historialari anitzendako. 20. mendean, batez ere, historialari *navarristak* saiatuko dira historia hori arintzen, eta konkistaren ustezko onurak azpimarratzen. Halere, orain, Nafarroaren konkista ukatzeko edo ezkutatzeko aurkituko ditugun arrazoiak guztiz desberdinak izanen dira. Antzinako Erregimenean, ikusi bezala, oinarri historiografiko bat eratu nahi izan zuten historialariek, Nafarroako erakundeak defendatzeko. 19 eta 20. mendeetan, ordea, nazioa izanen da historialarien estrategia ulertzeko giltzarria. Hain zuzen ere, Nafarroaren espainiartasuna defendatze aldera ezkutatu dute historialari batzuek (Eladio Esparza, Victor Pradera, Jaime Ignacio del Burgo) Nafarroa Gaztelari lotzeko egiazko modua.

Bistan da Nafarroaren konkista berridatzi behar dela, gure ikuspuntutik. Saio batzuk izan dira historian; adibidez, 19. mendean, euskaroen taldeak egindakoak. Gaur egun, zenbait historialarik argi eta garbi utzi dute gertatutakoa konkista izan zela, eta ez borondatezko bat-egite bat, ezta prozesu baketsu bat ere. Hori guztia ongi dago, baina gure historia berridatzeko, ikuspuntu egokia ez ezik, metodologia zorrotza ere behar da, eta, nire ustez, zenbait historialarik huts egin dute puntu horretan. Beharbada egin beharreko lana berria delako, saiatu dira halako tradizio historiografiko bat asmatzen: konparaziorako, Moret eta Oihenart “nafar Estatuaren” defendatzaileen artean sailkatu dituzte; nire iduriko, bien lanean ez dago sailkapen hori justifikatzen duen zantzurik. Edo tematu dira nazio kontzeptua 16. mendera eramaten; nire ustez, kontu handiagoz jokatu beharko genuke puntu horretan. Egia da Nafarroak independentzia galdu izana traba izan dela euskal naziotasuna eraikitzeko; bertze kontu bat da, konkistaren garaiko parte hartzaileek, beamondarrek eta agramondarrek, nazioa bezalako kontzeptuek akuilatuta egiten zuten borrokan, eta bertze ideia eta interes batzuek bultzatuta.

Edonola ere, 2012. urtea momentu ona izan daiteke horretaz guztiaz eztabaidatzeko.

Arturo Campion eta Nafarroako konkista

Emilio Majuelo

Nola irakurri Campion?

Ikuspegi askotatik azter ditzakegu iruinxeme ospetsu honen liburuak. Campionen lan guztien artean gai ezberdin asko agertzen ba zaigu ere badira bi alderdik bere obra guztia zeharkatzen dutela. Bata politika da eta bestea historia. Campionen proposamenak argitzen dizkiguten bi ardatz hauek nolakoak ziren esaten ausartuko naiz. Análisi horretan zehatz-mehatz sartu gabe aipu bat gehiago egingo dut: Campionen lan gehienetan politika eta historia ez dira sakabanatuak agertzen oso erlazioatuak baizik. Campion ulertzeko derrigorrez politikatik irakurri behar da nahiz eta historiaren ikuspegitik begiratzea posiblea eta beharrezkoa izan bera hobeto ulertu nahi badugu. Are gehiago esanez historiaren esparruan kokatzen da Campion politikoa eta horri lotuta aurkitzen dugu bere historiaren interpretazioa, garaiko politikan murgildurik.

Foru sistemaren desegituraketa

Euskal idazle askorentzat 1876eko gizarte hausturak betirako markatu zuen. Gerla karlista-liberala jadanik bukatuta zegoen baina Euskal Herriko erakunde publikoak nola zigorturik izan ziren agerian gelditu zen: foru sistemen moldaketa edo deuseztatzea, suntsiketa ekonomikoa eta morala, udal ogasun instituzioak zorpetuak... Ez zen hori bakarrik. Madrilgo liberalek gerlaren kausa ez zuten soilik karlismoaren aldean paratu euskal foru sistemetan baizik; hau egitean faltsuki irudikatu zuten, gauza bera balitz bezala, foruen defentsa eta karlismoaren matxinada; Estatu espainiarraren mezua garbi azpimarratu zuten: euskaldun guztiak gerraren errudunak ziren eta erruduntzat hartuz haien sistema foralak zigorturik izan behar ziren.

Arazo honengatik eta Gobernuaren gehiegikeri horren kontra kolore politiko ezberdinetako jende asko agertu zen. Haien arteko bat Campion dugu (Altadill, Oloriz, Aranzadi..., bezala). Horregatik ez zen batere kasualitatea izan justu foruen abolizioaren urtean Campioneek bere lehenengo obra argitara ematea izenburu honekin: *Consideraciones acerca de la cuestión foral y los carlistas en Navarra*. Beste gauza askoren artean lan horretan azaldu zuen handik aurrera zein izango zen bere bizitza osorako programa: foruen defentsa, ohiko euskal sistema instituzionalaren bereganatzea, euskal nazioaren eraikitzea (bere baitako prozesu luze horretan katolizismoan sinismena gero eta errotuago izanik). Dena den, nola

gauzatu zuen bizitza-programa hori? Honetarako erantzun zuzena dugu: Politika eta Kulturaren bidez. Adin askoan sartuta egonda, 1930ean, Eusko Ikaskuntzak bere omenez eskaini zion omenaldi erraldoian Campionek berriro goraiatu zuen 1876ean bere bizitzan zehar ildo horiek izaniko funtsa.

Historia

Campionen ibilbide intelektualaren mugarrak bide askotan ikus genezakeen. Baina, arestian aipaturik izan den bezala, ezagutza historikoaren aberastasunetik gero eta hurbilago sentitu zen. Historiaren beharra goiz nabaritu zuen bere inguruko errealitatea ondo ulertzeko eta azaltzeko. Hasierako zenbait lanetan historia atze-ohial moduan agertu bazen ere hizkuntzalaritzako ikasketei edo lehenetariko saiakerei ekin zienean ikuspegi historikoa horietan agertuko da. Berez historiak bere jarduera intelektual guztia osotasunean kokatzeko eskaintzen zion aukera ez zuen errefusatu. 1880ko hamarkadaren erdialdean, gutxi gora behera, Campion artxibategietan sartu zenetik bere indar fisikoak gutxitzen joan arte ikerketa giroan mugituko da. XIX. mendean dena historia zen: hizkuntzalaritza historia zen, (gizartea ezagutzeko zati funtsezko eta bazterrezinezkoa zelako); nobela historiakoaren urrezko garaia zenbait tokitan gainditurik bazen ere, Campionek urte horietan landu zuen; orokorrean egiten ari zen historia maila erudiziotik egoera profesionaleko bidera azkar pasatzen ari zen; beste gizarte zientziak (antropologia, soziologia, demografia, arkeologia, e.a.) berriak izanik ere agudo zabaltzen ari ziren, (historiako diziplinari aurre egiten batzutan, askotan berriz laguntza eskaintzen). Campion nazioen eta historiaren mendean jaiotzean bere pentsaera-moldeetan mendeko bereizgarri hau nabarmenki islaturik gelditu zen.

Nafarroako konkista

Historiako ikerketarekin hasi (1884) eta handik urte gutxira Nafarroako konkistaz interesaturik agertu zen Campion. *El genio de Navarra (1884-1888)* liburua idazteko materialak biltzen ibili zen baina goiz ikusi zuen historiako ikerketak bestelako lanak eskatzen zituela. Horretaz jabetuta, dokumentuak, datuak, liburuak, genealogiak, biltzeari ekin zion beranduago horiekin testu bat idazteko, zeren hori baitzen bere buruan zuen egitasmoa: egunen batean historiako liburu berri bat idaztea izenburu adierazgarri honekin *La muerte de la nación nabarra*. Hemen aurkitzen dut Campionen lehenengo aipua Nafarroako konkistari buruz.

El genio de Navarra idatzi eta gero *Keltas, Iberos y Euskaldunas. Los Orígenes del pueblo vasco* etorri zen, lan mardula 1897rako bukatuta zuena. Lan honetan kristoren

informazioa jaso zuen historiaren inguruko gizarte zientzietatik. Handik ez urte gehiegira hasi zen *Nabarra en su vida histórica* idazten. Dokumentazio asko arakatuta nahiko informazio historikoa bildu zuen bere funtsezko liburu hau idazteko. Azkeri bere egitasmo hau 1912an aitortu zion. Hilabete horietan Francesc Carreras i Candi, editore katalandar ospetsuarekin hitzartuta zuen, Julio Altadillekin batera, obra erraldoi batetan parte hartzeko, *Geografía del País Vasco-Navarro* izenekoa.

Ez dakigu justu zein urtetan argitaratu zen obra honetarako idatzi zuen atala. Ziur aski 1915ean. Testu luzea zen baina oraingo honetan bere izenburu adierazgarria da arreta eskatzen diguna. Hemen garbi agertzen zaiguna da Nafarroa noizbait bizirik baldin bazegoen bakarrik erresumaren garai historikoan izan zela. Horren aurretik, hau da, erret dinastiak agerian izan baino lehenagoko garaia toki gutxi eman zion liburuan. Berak ondo menderatzen zituen klasikoen testuak edo etnografiak edo antropologiak (gero arkeologiak) urte haietan ezagutzera ematen zutena. Baina lan honetan orri kopurua ez da oso handia izan Antzinaroari eman ziona. Honekin esaten digu Campionek Erresumaren historian garairik garrantzitsuena nafar monarkiarena izan zela mende horietan zehar Nafarroak independentzia zuelako. Eta hau horrela ulertuta, independentzia galduz gero “Nafar Nazioaren Heriotza”z pentsatzen zuela idaztea. Konkistak erakarri zion erresumari 1512ra arte zuen gauzarik maitatuena galtzea: nazioarteko subjektu politikoa izana. Hau desagertuta erresuma existitu zen baina arimarik gabe bezalako gauza bat bihurtuta.

Campionen ikertzeko/idazteko modua

Campionek lantzen zituen gaiak, eta haietaz behin idatzi eta ondoren, ez zituen albo batean utzi baizik eta haiekin lanean jarraitu zuen: gai hauetaz monografia berriak irakurtzen, bibliografia berezitua jarraitzen, beste ikerlari eta idazleekin kontaktuan jarri... 1897an *Keltak, Iberoak eta Euskaldunak* bukatu bezain pronto bigarren edizio handiagoa ateratzea pentsatzen hasi zen. Eta atera zuen baina hogeita hamar urte beranduago eta hiru liburukietan, 1927an, 1930ean eta 1936an argitara emandakoak.

Nabarra en su vida histórica liburuarekin gauza bera gertatu zen eta 1920. hamarkadan konkistaren inguruan artikulu sendo batzuk argitaratu zituen. Egia da horietako artikulu batzuk eztabaida sutsu batekin erlazonaturik daudela, Amaiuren nafar independentziaren aldekoen oroitarria eraiki behar zenekoa hain zuzen. Baina hori ez da garrantzitsuena, lehen esana baitugu nola historiako lanak eta jarduera politikoa oso hurbil izan zituela bere bizitza osoan. Artikulu horietan nabarmenena da Nafarroaren konkista ez zuela

inolaz ere ahaztua izaten; ikertzeko grina eta indarra oraindik zituen Campionek, (beti ere ahaztu gabe zer suposatu zitzaion lan horiek egitea hirurogeita sei urte zituela eta ikusmena galtzen hasia zela). Bestaldetik artikulu horien izenburuak oso adierazgarriak dira Campionen ezaugarri pertsonal bat ezagutzeko, hau da, intelektual moduko jarduera publikoa betetzen jarraitzen zuela. Artikulu hauek hurrengo hauek izan ziren: “Después de la conquista. (La política y el gobierno foral del usurpador)”; “Los primeros contrafueros de la dinastía intrusa”; “La familia de San Francisco Javier”; “Amaiur”, Pedro de Navascués-en liburuaren hitzaurrea; “Más reflexiones sobre la bula ‘Exigit’ y más pormenores sobre la Conquista de Navarra”; eta “Reyes de Navarra en el destierro”.

Baina *Nabarra en su vida histórica* liburura bueltatu behar dugu zeren aipatutako artikulu horiek idaztea egoki zetorkion *Nabarra...* testuaren bigarren edizioa egiteko. Horretan gogor aritu zen Campion, Pedro de Navascués, Jesús Etayo eta José Zalbaren laguntzarekin. 1925ean edizio berria bukatuta zegoen bera ikusmenaz nahiko justu ibili zela. Lau urte beranduago argitara eman zuen; atzerapenaren zergatia egoera politikoa zen, Primo de Riveraren diktadurari beldur baitzegoen.

Bigarren edizio honetan ehunkada orri gehiago agertzen dira lehenengoan baino. Garai hartan barneko historia deitzen zenari zenbait orri dedikatu zion (arte, gizarte,...) baina batez ere konkistari buruzko atalak bereziki gehitu zituen.

Nafarroako konkista Campionentzat izan zen enborrezko gai bat. Bere bizitza intelektualaren bukaeran gai hori hain maiz ikustea ez da kasualitatea. Campioni konkista ondoko egoerak independentziaren galera oroitarazi zion; 1521tik aurrera nahiz eta nafar erresumako egoera instituzionala ez izan, berak nahi izan balu bezala, mantendu zen 1841era arte; gero, euskal foruen ezabapenarekin bere nahiak eta gogoak bertan behera joan ziren; hona dator berriro 1876ko hausturaren garrantzia. Munduaren aurrean bera agertu zenean Euskal Herriak pairatzen zuen zigorrak mingostu eta asalatu zuen konpromiso trinko batetara eramaten. Nafar foruak defendatzeko nahia azalduta, Euskal Herriaren aldeko leloa hartuta, Erresumaren historia landuta, pentsatu zuen erresuma horren “arima” berreskuratzea posiblea izango zela. Bizitza osoa, esan dugun bezala, bere ideei hauetan sinistuta eskaini zuen.

Nafarroako konkista literaturan

Patxi Larrion Galdeano

Komunikazio honen hasierako asmoa zerrenda bat egitea zen. Hau da, Nafarroaren Konkistaren gaia era batera edo bestera baliatu duten literatur lanen zerrenda. Azterketa beste baterako edota beste norbaitendako uzteko asmoa nuen, baina gaian murgildu eta amore eman behar izan dut. Gogoetarako bide zabaldu dit irakurritakoak.

Hiru oharpen hasmenta gisa

Nire ekarpena ez da mugatuko nobela historikoaren generora. Literatur genero hau aski ongi zedarriturik dago, eta gaiak literatur testu ugari iradoki ditu, gehienak erdaraz.

Bigarren oharpena marko kronologikoari dagokio. Ontzat ematen dut Peio Monteanoren periodizazioa, eta horri jarraiki niretzat ere 1512tik 1529ra doan aroa da Nafarroako Konkistaren garaia. Bada, lan honetan marko historikoa zabaldu dut, bi heriotza data dira ezarri ditudan mugarrak. Karlos III.aren erregealdiaren akabera (1425) eta Nafarroako Henrike III.aren heriotza (1610). Bi mende eskas, Nafarroako erresuma zaharra goitik behera aldarazi zutenak, bihurtuz beteriko aldaketa garaiak.

Galdera sorta bat duzu azken oharra, bildu gaituen gaiarekiko, hau da, duela 500 urte gertatu zirenak gure literaturan izan duten isla aztertzeko tenorean, ba al du memoriak historiak adina garrantzirik? Zein da duela bost mende gertaturiko konkistak egun gure memoria kolektiboan betetzen duen tokia? Memoria kolektiboa eta imaginario kolektiboa gauza bera al dira? Galdera hauei aurre egitean, Nafarroako konkistaren inguruko hainbat literatur testu aurrean ditudalarik, Iñigo Aranbarrik¹ eta Santiago Leonek² historia eta oroimenaz plazaratu dituztenak izan ditut gogoan.

¹ Memoriak oinarritzko balioetan, gizatasunaren balioetan, hunkitzeko gaitasun handia du, Literaturarako oso baliagarria, historia ez bezala. Historiak arazo handi bat du: historia irakurri eta hurbiltzen ahalegindu gaitzeko, baina historia ezin dugu interpretatu gaur egungo ikuspegietatik. Askotan entzuten dira honelako galderak: «Eta gu orain dela 40 urte zer izango ginen? Karliten eta liberalen garaian, karlistak edo liberalak izango ginen? Nafarroako konkistaren garaian, zer egingo genuen?» Baina ez daukagu nahikoa elementu guk egoera horiek nola biziko genituen jakiteko. Joera handia dago orain dela

Konkista poesian. Amaiurko Gaztelu Baltzatik Garañoraino

Konkistaren marko kronologikoa zabaldu dugunez, Bereterretxeren kantoriarekin zerikusirik duten lanak ere aztergai ditugu.

Zuzenean edo zeharka gaia jorratzen dutenen zerrendan honako izen hauek ageri zaizkit: Lauaxeta (Amaiurko Gaztelu Baltza) Xabier Lete (Nafarroa Arragoa, Gu ezaren seme, Nafarroako azken erreginak Donapaleun) Artze (Laino guztien azpitik...) Joxe Azurmendi (Manifestu atzeratua) Jose Angel Irigaray (Ihauteriaren kondaira, Bizi minaren olerkian) Jon Mirande (Jauregi hotzean, Eresi, Gudu-abestia) Luis Garde (I will sing a lullaby), Joxemiel Bidador (Oskiate, Garaño).

Arestian aipatu zenbait olerki musikaturik ageri zaizkigu, bestalde bada garai hau gogoratze aldera sorturiko kantaren bat, konparazio batera Exkixu taldearen *Amaiur* kanta.

Antzerkia. Etxaideren *Amayur*, Zabaletaren *Mariskala* eta Irigoienek *Kristala*

Jon Etxaidek pasa den mendearen erdialdean idatzi zuen *Amayur* antzeslana. Bertan ageri da Nafarroako Pedro mariskala, pertsonaia bera du protagonista Patxi Zabaletaren *Nafarroako azken mariskala* antzeslanak.³ Mattin Hirigoienek *Hautsi da kristala* historiaren bihurtune bera du antzestoki baina amizkuztarraren kasuan ironia da kontakizunaren motorra.

Marko kronologikoa zabaltzean zenbait Pastoral sar ditzakegu azterketa honetan. *Berterretx* gutxienez lau aldiz taularatu da, 1949an (Urdiñarbe/Maule) 1958an (Maule) 1970ean (Ligi/Atarratze) azken bi hauetan Etxaun-Irurik idatzi zuen testua, eta 2005ean (Ligi) Pier Paul Berzaitzen testua jarraikiz. Etxaun-Iruriren testuak dira halaber *Matalaz* (Eskuila

40, 200 edo 500 urteko gertaerak gaur egungo ikuspegietatik ulertzeko edo justifikatzeko, eta hori oso zaila da. Eta askotan zilegi ere ez da hori egitea.” Iñigo Aranbarriri egindako elkarrizketa (Berria 11/07/26).

² Konkistaren oroimena, oroimenaren konkista. Santiago Leone Argia astekaria 2181

1955, Parise 1964) eta *De Treville* (1966, Iruri). Muskildin 1985ean *Allande Oyhenart* pastorala antzestu zuten, idazlea Allande Bordaxar izan zen. *Atharratze Jauregian* ere multzo honetan sar dezakegu, Pier Paul Bertzaitzek idatzi testua 1997an Atarratzen eta Otsagin antzestu zuten.

Narratiba. Tesi historikoak versus sormena.

Garaian garaikoa. Sormenari dagokionez, narratiba da egun euskarazko ekoizpenaren zatirik handiena eta konkistaren gaiarekin bezgauza gertatu da. Nobelak edota ipuinak dira aztertu ditudan testuak. Horien artean, Jon Alonsoren *Katebegi galdua*, Joxan Oizen *Beñat Dardo*, Aingeru Epaltzaren “Erresuma eta Fedea” trilogiaren lehendabiziko bi aleak (*Mailuaren odola*, *Izan bainintzen Nafarroako errege*), eta Iñaki Petxarromanen *Nafarroaren amets odoltsua* ipuina

Gazteleraz ez bezala, tesi historiko jakin baten defentsan idatzitako literatur lanak baino, sormenaren mesedetan idatziriko testuak dira euskaraz sortu gehienak. Euskaldunon imaginarioan eta zenbait kasuetan euskal literaturan nor diren hainbat pertsonaien inguruko ibilbide literarioa proposatzen dute. Errealitatea eta fikzioaren arteko muga aski lausoturik ageriko da aipatu lan horietan eta maiz tesi historiko bat defendatu baino, gure imaginarioaren zabaltzea dute xede.

Testu hauek harilkatzeko tenorean Oihenarten 117. atsotitzak⁴ ustez izkutatzen duena aintzat hartu dut.

³ Star Wars saga maite dutenendako simil erraza da honako hau. Nor da Nafarroako konkistan Obi-Wan Kenobi? On Pedro Mariskala. Nor Darth Wader? Leringo Kondea

⁴ “Dohakaizdunak Zizurren illuna”

Konkista eta Memoria Historikoa

Patxi Abasolo Lopez

Oroimena eta Historia.

Zertaz ari gara, gure helburuetako bat oroimen historikoa berreskuratzea dela diogunean? Zuzenago esanda, Julián Casanovak esaten duen bezala, oroimenaren jendarte-dimentsioaz hitz egin beharko genuke.⁵ “Oroimen historikoa” kontzeptuaren esanahiari begira jarriz gero, agian, bere erabilpenak justifikaziorik ez duela aitortu beharko genuke. Bereziki, orain dela mende asko gertatutakoaz ari garenean.

Historiaren ustezko oroimenaren inguruko eztabaida epistemologikoaz aparte, Nafarroaren Konkistaren inguruko gertaera historikoaz ari garenean, **oroimen episodikoaz** edota **autobiografikoaz** mintzatzeko zailtasunak aurkitzen ditugula aitortzeko beharrean gaude. Kasu honetan, une edota leku zehatz batean pertsona batek bizitako esperientzien berreskuratzeatik urrun kokatzen baikara. Beste modu batean azalduta, oroimen historikoaz ari garenean, denboran, hurbileko historia baino askoz atzerago egiten dugu. Baina, orain dela 500 urteko gertakizunak berreskuratzeke bidai honetan, agerian gelditzen da herri honetako biztanleek, guk zein gure aurreko belaunaldikoek, antzeko bizipenak bizi izan dituzte. Eta hau guztia porrotaren eta sufrimenduaren lurrinaz bustirik. Oroimenaren berreskuratzearen bidean, ohikoena alderdi positiboak azpimarratzea eta negatiboak alde batera uztea bada ere, gurea bezalako kasuetan, alderdi negatibo horiek **oroimenaren sorleku** bihurtzen dira. 1512ko gertaeren kasua da, edota Noainen eta Amaiurren jasandako porrotak, 1521eko ekainean eta 1522ko otsailean, urrenez urren. 500 urte eta gero, gure Herriaren zati inportante batek, iraganean pairatutako sufrimenduarengatik ordaina eskatzen jarraitzen du, baita gure orainean iragan horrek izan dituen ondorioengatik ere.

Orduan, nafar emakume-gizonok, orain dela 500 urte gertatutako berreskuratzen ari garenean, ez gara informazio semantikoaren berreskuratze huts bat egiten ari (**memoria semantikoa**). Informazioaren berreskuratze hori ez dago jakitearen kontzientzia soil bati lotua. Herri mugimendua garez, zenbait arau metodologiko eta teoriko kontuan ez hartzeko dugun lizentzia probestuz, honakoa baieztatu dezakegu: Informazioaren berreskuratze horrek zenbait gertaera gogoraraz eta sentiarazi ditzake, garai hartako gertaera horiek agian ez (garai hartako protagonistak hilik baitaude), bai, ordea, guk bizitako bestelako gertaera antzekoak.

Memoria historikoa **funtzio sozial** garrantzitsu bat betetzen ari da: erregimen zapaltzaileen biktimen oroimena bizirik iraunaraztea, eta zentzu honetan, ikusezin izatera kondenatutako taldeen oroimen historikoaren berreraikitzea, bai emakumeena, bai langileen klaseena, bai konkistatutako zein kolonizatutako Herriena. Gure kasuan, Herri oso baten esperientzia, Nafarroarena, mendeetan eskubide osoz Estatu gisa bizi izan zena. Konkista prozesu luze batek, eta honek eragin zion menpekotasun soziala, politikoa eta ekonomikoa, Historiaren trenetik jaitsiarazi zuen Nafarroa.

Ikusezintasun prozesuez markatutako oroimena berreskuratzeko dinamika oro, ezin da ikerketa zientifiko soil batera mugatu. Aldiz, **herri mugimenduen partehartze aktiboarekin** batera aurrera egin beharko du. Gure kasuan *1512-2012 Nafarroa Bizirik* ekimenaren helburua, espainiar eta frantziar historiografiak inposatutako ikuspuntuak desmitifikatzea da. Gure ekimenak ikerketa, jendarte eta kultur eremu desberdinak batzen dituen gunea izan nahi du. Mendeetako akulturazioari aurre egiteko, eskubidez beteriko nafarrak sentitzen garenon nortasuna berreraikitzeke plataforma bat.

Deuseztatu ezin izan duten oroimena.

Ohikoa da boterea, Historia eta manipulazioa bidelagunak izatea. Talde oroimena eraikitzeke estrategietan, **ez-egiteaz** aparte, **asmazioak** eta **gehiegikeriak** ere erabiltzen dira. Espainiaren kasuan, Santiago apostoluaren hilobiaren asmakuntza honen adibidea da, edota 1808ko maiatzaren 2an Madrilen gertatuko matxinadaren inguruan esaten diren gehiegikeriak, Napoleonen kontrako altxamendu nazional gisa margotzen dute eta. Cid Campeador delako mertzenarioaren irudiaren inguruan, gauza bera, edota musulmanek eta kristauak Covadongan izandako talka armatua Gatazka Handi bihurtzen dutenean.

Guk, orain dela 500 urte gertatukoa ahanzturatik ateratzeko beharra aldarrikatzen dugu, eta horretarako, ez dugu behar gezurrik edota gehiegikeriarik. **Garaituen oroimena** berreskuratzea da gure helburuetako bat. Herri honen alde aritzeagatik eta inbaditzailearen aurrean ez makurtzearengatik nozitutako esperientzia traumatikoak. Izen-abizenak dituzten pertsonak dira. Nafarroako gizon eta emakume horiek, beraien lurraldetan armada inbaditzailea sartu zenetik, ofizialki desagertaraziak, “frantziar”, “sorginak”, “traidoreak”, “bide lapurrak” eta “heretikoak” aurrerantzean.

⁵ Casanova, Julián, “Mentiras convincentes”, *El País*, 14 de junio de 2005.

Memoria historikoaz ari garenean, hurbila zein mende batzuk atzera joanez gero, gure kasuan gertatzen den bezala, **itxi gabeko prozesuaz** ari gara. Ordain mota baten zain dago, oraindik odola darion zauria. Egiaren berreskuratzeaz ari gara, biktimei lapurtutako duintasuna berrezarri, nahiz eta pertsona horiek orain dela 5 mende bizi, maitatu, eta sufritu izana. Estatu independentea izan ginen, Nafarroa izenekoa, gure talde oroimenetik. Zoritxarrez, gure oroimenaren kontra egindako erasoengatik, nafar askok ez dute Nafarroaren historia bere egiten. Berriz, Euskal Herriko garapen politikoa, juridikoa, ekonomikoa eta kulturala ulertu ahal izateko, Nafarroako erresumaren esperientzia historikoa aintzat hartu behar dugu.

Beste prozesu historikoetan gertatzen den antzera, amnistia lege faltsuak ez ditugu nahi, ahanzturaren kontrako lan iraunkorra da gurea, **amnesteia**ren kontrakoa. Mundu klasikoraino atzera egiten, amnistia kontzeptua nola sortu zen ikus dezakegu. Greziar historikoaren hiztegi bati begira, eta "amnistia" hitza aurkituz gero, Peloponesoren gudaren amaieran ezarri zuten amnistia kontzeptuaren inguruan dagoen lehenengo dokumentazio gisa agertzen dela jabetuko gara. Garai horietan, Gobernu berriak *amnesteia* izeneko gauza bat deklaratu zuten, ahanztura, gauza guztien ahanztura, gertatutakoaren ahanztura, hain zuzen ere. Gertaera hori, Historiaren lehenengo amnistia izan zen, gertaera historiko hurbilen inguruko erabaki politiko bat. Gaur, 500 urte eta gero, Espainiar Konstituzioaren menpe dugun lege inportantenak, Nafarroako Foru Hobekuntzaren Lege Organikoak, ez ditu gertaera horiek ezagutzen. Ez ziren izan.

2012. urtea, 1512ko konkistaren bosgarren mendeurrena, gure iraganaren oroimena berreskuratzeko ariketa praktikoa paregabea izango da. 2009ko urtarrilean, Migel Sanz, menderatutako Nafarroa Garaiko lehendakaria zena, gertaera horien inguruan harribitxi hauek bota zituen: "Nafarroa foral eta espainiarraren oraina hasi zen eraikitzen (konkistarekin). Orduan sortu zen gure foru sistema, Espainia konstituzionalaren baitan." Nafarroarentzat, zutik diraun Nafarroarentzat, askatasunik gabeko 500 urte izan dira, Estaturik gabe, bortizki okupatuak, bere etorkizuna erabakitzeko aukerarik gabe. Ezin dira konkistak ospatu, are gehiago gurea baita. Konkistak salatu behar dira, benetan gertatutakoa zabalduz, eta ozen oihukatuz gure Estatuak galtzeak izugarritzko zorigaitza ekarri zuela. Gaur, XXI. mendean, orain dela 500 urte lapurtu ziguten burujabetasuna burutik kendu ezin dugulako.

Konkista gaur egungo politikatik, mahaingurua

Joseba Asiron Saez

Gaur egun, eta Konkistaren 5. mendeurrena horren gertu dugun momentu honetan, eztabaidaren analisia 3 ikuspuntu ezberdinetatik egin daitekeela uste dugu:

1. Arlo politikotik
2. Arlo sozialetik
3. Arlo zientifikotik

1. Ikuspuntu politiko batetik, eztabaida hiruki baten itxura osatzen duten hiru gune edo erpinen inguruan aurreikusten da. Hirukiaren bi erpin alderdiez osatuak daude. Alde batetik nabarrismoaren teoria historikoari oraindik eusten dioten taldeak, eta bestetik gero eta indar gehiagorekin “nafar paradigma” delakoa bultzatzen duten alderdi abertzale eta ezkertiarak. Eta ahaztu gabe hirukiaren hirugarren erpinean kokatuak daudela oso papera garrantzitsua jokatu behar duten herri ekimenak edota herri mugimenduak.

2. Arlo sozialean ere, herri ekimenen papera ezinbestekoa izango da, haiei dagokielako konkistaren funtsa eta esanahiaren gizarteratzeko ahalegina. Konbentzituta gaude, gainera, hau izango dela erakunde ofizialen aldetik eta teoria nabarristaren aldetik gutxien jorratuko den arloa. Zentzu honetan, 1512-2012 Nafarroa Bizirik herri ekimenaren protagonismoa momentuz erabatekoa izan da, eta hurrengo 12 hilabeteetan oraindik handiagoa izango dela uste dugu. Arlo sozialaren barruan kokatu behar dugu, baita ere, konkistaren berrikuspenak heziketan izan behar duen islada. Eta puntu honetan egon daitezke, zalantzarik gabe, gabezia handienak, gure seme-alaben testu liburuetan gaur egun oraindik Konkistaren inguruan nabarmendu diren topiko nagusiek irauten dutela erraz sumatzen delako.

3. Ikuspuntu zientifikoari dagokionez, arlo honetan aurrerapauso nabarmenenak eman direla uste dugu. Konkistaren berrikuspen zientifikoak kolokan jarri du gai honen inguruan egon den ohiko bertsioa, eta esan daiteke beste bi arloetan, hau da arlo politikoan eta arlo sozialean, egon diren aldaketa guztien ezinbesteko motorea izan da. Arlo zientifiko honetan, bestalde, osagai ezberdinak daudela uste dugu, hala nola:

- a) Berrikuntza bibliografikoak, azken 10 urteetan erabat berritu delako arlo honen inguruko historiografiaren panorama.
- b) Indusketa arkeologikoek, Amaiur, Garainu, Lizarra edota Irulegi bezalako gazteluetan, azaleratu dute Konkistaren garaian suntsitutako Nafarroako defentsa-

sistemaren egitura, balio handiko osagai sinbolikoak eta identitate-zeinuak berreskuratu diren bitartean.

c) Burutzen ari diren kongresu, sinposio eta jardunaldiak, azkenik, ematen ari diren aurrerapauso zientifiko ezberdinak konpartitzeko eta dibulgatzeko aukera paregabea ematen ari dira, gaiaren inguruko interesa pizten duten bitartean. Zentzu honetan, eskertu behar zaio Udako Euskal Unibertsitateari “Nafarroaren Konkista berrikusten” izenburuko jardunaldi honen antolaketa.

Konkista gaur egungo politikatik, mahaingurua

Floren Aoiz Monreal

Mahai inguru batean, ohiko hitzaldietan ez bezala, laburtasuna funtsezkoa da: ideia sinple eta argiak aurkeztu behar dira, denbora mugatua baita. Honenbestez, usadiozko txostenen estiloa alde batera utzi eta hainbat atal motzen inguruan antolatuko dut ene ekarpena.

Sarrera gisa esanen dut, dena den, mahai inguruaren izenburuak iruzur bat ekar dezakeela. Izan ere, politika eta azterketa historikoa bereizten direlarik (UEUren egitarauak argitzen du goizean adituek hitz eginen dutela eta arratsaldean, mahai ingurua eginen dela) bi gauza ezberdin edota, agian, elkar kontrajarri gisa har daitezke. Nolabait, pentsa daiteke politikoa ez den ikuspegitik begiratzen ahal zaiola historiari.

Ez dut horrela ikusten, alta. Animalia politikoak garen heinean, gure begirada, nahi ala ez, edo agian, esan beharko nuke, aitortu ala ez, politikoa da. Ez nator bat politika politikari profesionalekin edo alderdiekin identifikatzen dutenekin. Areago, historia politikoa aipatzen delarik (zer da, bestela, 1512ko konkista?) alperrikakoa da politika izkutatzea. Alperrikakoa eta, maila batean, arriskutsua, eztabaida ongi bideratu beharrean nahasten ahal dugulako.

Aitor dezagun gure ikuspegia, izan gaitezen sakon, zorrotz eta zintzo gure azterketan, baina ez dezagun gure begiradaren ezaugarritze politikoa uka.

Ene ideia nagusia laburki azalduko dut: 1512. urteko gertaerak oroitzeak merezi du. Merezi du, beraz, konkistari buruzko hausnarketa bat egiteak. Zergatik?

1. Prozesu historikoen ondorioa baita gaur egungo egoera, ziklo luzeetan uztartzen delako gaurko Nafarroa, 1512ko konkistan mugarri erabakiorra izan zuen zikloan, hots. Egitura politiko estatalen ikuspegitik, konkistak mendeetako ibilbidea aldarazi zuen, gaur egungo errealitatearen aurrekari nagusia izan zelarik.

Gaur egun Nafarroa Garaia espainiar komunitate autonomo bat da arrazoi eta gertaera eta jarduera askoren ondorioz, baina, bereziki, espainiarrek Nafarroako erresuma indarrez desegin eta Nafarroa Garaia indarrez eraikitzen ari zen Espainia nazio-estatu egitasmoan uztartu zutelako.

1512. urtearen ingurukoa kalitatezko jauzia izan zen. Nafarroa, ordurarte, estatalizatze egitasmo baten burua zen. Gerora, beste egitasmo baten periferia bilakatu zen.

Sinplifikazioak aski arriskutsuak badira ere, esaten ahal dugu azkenengo 500 urteetan bi direla Nafarroan gertatu diren aldaketa handienak, lehena konkista izan zen, estatuaren galera, eta bigarrena, industrializazioa, jendarte eredu batetik bestera emandako jauzia.

2. Ideologiaren arteko talkaren ikuspuntutik, oso garrantzitsua delako konkistaren aldeko erralatoa eta konkistaren ordeztutako paktismoa aztertzea eta atzean duten borondate politikoa agerian uztea.

Azken mendeetako Nafarroa, baita gaurkoa ere, hainbat mito eta narrazioen arabera eraiki da. Konkista desitxuratu da operazio politiko baten ondorioz. Alde batetik, konkistatzaileek gertaeren errelatoa egin dute, nafar estatalizazioaren etena justifikatzeko, besteak beste, estatalizazioaren prozesu bera ukatuz. Bestetik, bertako jendarte sektore batzuek eraikin ideopolitikoak sortu dute, ituna, espainiar erresumaren presioari aurre egin eta nagusitasuna bermatzeko asmoz.

Nire ustetan, aski inportantea da narrazio horien atzetik konkistaren ukapena dagoela argitara ematea. Eta, batez ere, operazio honen inguruko azterketa egitea: zergatik egin dute? Eta, nagusiki: zergatik izan dute arrakasta?

Gaur egun berrindartu da nafartasunaren inguruko eztabaida. Eta iraganari buruzko narrazioek garrantzia handia izan dute -eta orain ere badute- eztabaida horretan. Baina, argi esan dezagun, ez dira hikamika historiografiko hutsak, ez dira lehia akademikoak, nagusitaun politiko eta ideologikoaren inguruko lehian uztartzen diren borroka baizik.

Oso ezberdinak dira, esaterako, Nafarroako konkista eta Granadako harreraren inguruko eztabaidak. Biak une historiko berean gertatu ziren, antzekotasun batzuk atzematen ahal dira bi gertaeren artean, ezberdintasunak agerikoak direlarik, dena den. Baina ezberdintasun handia gaur eguneko ikuspegian kokatzen da. Granadan ez bezala, Euskal Herrian, 1512ko gertaeren inguruko eztabaida nazio nortasun eredu eta, zehazki, estatalizazio egitasmo ezberdinen arteko talkan kokatzen da.

Iraganaren ingurukoak ez du eztabaidaren zentraltasuna, edonola ere, eta nire ustetan ez du izan behar. XXI. mendeko jendarte batean iparorratz nagusiak ez du iraganari so egiten. Eta ez du egin behar. Eztabaidaren esparru nagusia gaur egungo gertaeren irakurketan eta gerorako egitasmoetan kokatzen da. Lehia hau termino demokratikoetan bideratu behar da, jendartearen erabakien bitartez.

Borondatea da, honenbestez, Euskal Herriaren estatalizazio prozesuaren gakoa, baina borondatea eta oroitzapena ez dire elkarren etsai. Batez ere, nafar estatuaren ibilbidea nahita ukatu delarik eta konkista ituna bilakatu delarik.

Subjektibitateaz ari garelarik, iraganaren inguruko narrazioek garrantzia handia hartzen dute. Irabazleek iraganaren interpretazioaren monopolioa bereganatzen dute, eta sortzen diren eragile berriek monopolio hori hautsi nahi dute, bestelako narrazioak osatuz. Narrazio ofizialen kritika eta bestelako errelatoen sorrera askapen prozesuan kokatzen da, alienazioa gainditzeko saioak dira, finean.

Eta, honenbestez, oroitzapena, oroitzapenak, elkar kontra jartzen dira lehia honetan, eta lehia ez da bigarren mailakoa, Todorovek idatzi duenez, interpretazioaren jabea benetako jabea delako.

Nire ustetan, eta bukatzeko, erronka nagusia oroitzapenari dagokion lekuan datza. Ezin da baztertu eta ezin da nagusitu. 1512ko konkista oroitu behar dugu, ez etorkizunari so egiteko gako nagusia bilakatzeko, iragana ezagutu, bestelako narrazioa sortu eta errealtatea aldatzeko tresna gisa erabiltzeko baizik.

Konkista gaur egungo politikatik, mahaingurua

Bixente Serrano Izko

Politikan, historiaren beldur

Hemen nauzuen honi betidanik, haurtzarotik, gustatu zaizkion istorioak. Haiek entzutea eta batik bat irakurtzea. Nire kolkorako asmatzea ere bai. Istorio horiek kontatzeko, aldiz, nekezagoa izan zait beti: entzuleari aspergarri ez ote nintzaion lotsa-edo, herabetasun puntu lodi bat, azken finean. Horrexegatik gaur ere ez naiz luzatuko nire istorio xume honetan.

Kontua da nire ikasketen ibilbidean azken unera arte dudatan ibili nintzela zertan murgilduko nintzen, historiaz jabetzeko ala istorioak kontatzeko teknikak eta metodologiak emanen zizkidan *curriculumean*, hots, garai haietako eskaintzen artean, Historian ala Filologian. Zori-onez edo -txarrez, noiznolako arrazoiak ere tartean, arrazoi funtsezkoago batek bultzaturik, Historia egitera deliberatu nintzen. Eta hauxe zen arrazoi funtsezkoago hura: Historiak giltza gehiago emanen zidalakoan gure mundua ulertu eta aldatzen laguntzeko. Badakizue, joan den mendeko zazpigarren hamarraldiko giro engaiatu haren amets xaloak.

Hari batera dator istorio pertsonal laño hau, mahai-inguru honetakora hain zuzen: historia, gaurko edo, berdin dena, unean uneko politikatik ikusita; bi arloen arteko josturak, mugak, dependentzia edo independentzia mailak, interdependentzia azken finean.

Ez dago zehatz-mehatz jakiterik zerk bultzatzen duen gazte bat ikasketa batzuetan edo bertzeetan murgiltzera. Gaurko mundu krematistikoan, noiz ez da horrela izan?, erran nahi baita diruzaleatasunak gero eta gehiago mugitzen omen duen mundu honetako gazte goiztiar zuhur batzuk salbu, sehaskatik *viaipi* (VIP) izatera deitu horietatik salbu, banago halako estetika eta etika batek aztoratzen duela, nola edo hala, edonor bide bat edo bertzea hartzerakoan bere ibilbide profesionalari begira. Estetika eta etika horren barnean, jakina, munduari buruzko ikuskera bat dago: hau da, ikusitako mundu horretara moldatu edo berau aldatu edo edertu nahia. Hau da, kontziente ala ez, ikuspegi eta helburu politiko bat. Dela zientzia zehatzetan, natur zientzietan, edo giza jakintzetan. Historian ere bai, horratx.

Zentzu horretan, alferrikako eztabaida deritzot historiak eta politikak elkarrekiko independente izan behar duten ala ez. Alferrikako eztabaida, bai behintzat, maila horretan planteatuz gero. Ezin izan independente. Historia, zientzia gisa ulertzeko bidean lehen pausoak ematen hasi zenetik, Herodotorekin hasita eta sistema liberalekin zientzia akademiko

bihurtu zen arte (eta orobat bertze ikuspegi iraultzaile batzuk historia liberal haien aurka altxatu ziren arte), helburu politikoekin hasi eta garatu da beti historia: unean uneko mundua zuzitzeko eta finkatzeko ala fintzeko eta aldatzeko. Zein goiburu politikoago *Historia, magistra vitae* hura baino?

Ematen du, halarik ere, alferrikan ez baikaude garai teknokratikoetan –hau da, gure mundua teknologia desberdinek, eta ekonomian, soziologian, ingeniartzan, logika hutsean eta abarretan adituek antolatu behar dutelako ikuskeraren pean, gure mundua aditu neutralek antolatu behar dutelako ikuskeraren pean–, ematen du, diot, historiaren ikerketek ere ikuspegi politikoen gainetik, ikuspegi neutral baten barnean, mugitu eta murgildu behar dutela.

Ba, ez naiz batere original horren inguruan, neutraltasun horri uko egiten diodanean, ez zientzia batean ere, ez, hortaz, historian. Ez naiz batere original behin eta berriz diodanean, bertze askok bezala, teknokrazia ere ideologia politiko bat dela. Eta diodanean historia arloan, zilegi ez ezik, ezinbertzekoa dela ikuspegi politikoekin ikerketak egitea. Eta orobat diodanean ezinbertzekoa dela politikagintza ere arlo zientifiko guztiak kontuan hartzen, bereganatzen, hau da, ikuspegi politiko bakoitza bere aldeko argumentu edo argudioak bilatzen saiatzea; arlo guztietan berriro diot, historian ere bai.

Eztabaida, bada, ez dago politika eta historiaren arteko independentzian, baizik eta elkarrekiko dependentzia ezinbertzeko horren barnean, zein metodologia erabiltzen duten historialariek euren ikerketan, eta zein erretorikaz baliatzen diren politikoak zientzia guztietako urak euren errotetara eramateko. Batere originala ere ez den bertze ideia bat, naski.

Eztabaida, bada, bertze honetan dago: historialarien aldetik, garaian garaiko metodologia serio, sendo eta zuhurra zein neurrian erabili duen garaian garaiko Herodoto bakoitzak iragana ulertzerakoan garaian garaiko gaurtik; eta politikarien aldetik, garaian garaiko zein Herodotorengana jotzen duen garaian garaiko Perikle, iraganaren jakintza, jakineza edo manipulazioa bere errotara eramaterakoan.

Horrela ikusita, historialaritzaren eta politikagintza arteko harreman, muga, besarkada eta talketan, gaur egun eta Nafarroan, kotoi proba zoragarria dugu 1512-1530.eko Nafarroako erresumaren konkista eta zatiketa: zer jakin nahi dugun horretaz, zer ahaztu nahi dugun kontziente ala inkontzienteki horretaz, zer erabilera gehiegizko edo manipulatzaile egiten duten ikuspegi politiko batzuek eta bertzeek gaurko edo etorkizuneko gure munduari begira.

Bukatze aldera, ideia hauek bertzerik ez dut mahairatu nahi, abstraktuegiak oraindik ere baina gure solasean zehazteko parada izanen dugulakoan:

1. Ez gaitezen tema historia eta politika elkarri deslotzen, aitor dezagun historialari apolitikoenek ere ikuspegi politiko bat dutela, eta aitor dezagun politikari ezjakinen eta manipulatzaileenek ere euren neurriko eta intereseko memoria historiko bat dutela.
2. Jar ditzagun ikuspegi kritiko eta metodologikoki zurrun baten pean behin eta berriz ikerleen (bertzeen eta gure) emaitzak, horren bidez ezagutza aberatsagoa lortuko dugulakoan gure iraganaz.
3. Sinets dezagun iraganak, era batean edo bertzean ikusirik ere, gure gaurkoa baldintzatu duela, bai, baina hari buruzko gure jakintzak ez duela zertan ez determinatu ez baldintzatu zer mundua eraiki nahi dugun etorkizunerako: gure jakintzan maitemin bagina ere iraganarekin, sinets dezagun ez duela merezi amodio galduetan bizitza galtzea; eta gure jakintzak gorrotagarri egiten badigu iragana, sinets dezagun ahazturak, patologiko ala programatuak, ezin duela etorkizuneko bizikidetzaren sanoa eraiki.
4. Historiari buruzko nire ikuspegi politikoa laburbilduz: iraganarekiko maitemintze ala gorrotoaren beldurrak jota izanik ere, edo, areago, beldur horrengatik hain zuzen, iker eta eztabaida dezagun demokratikoki, guztioi aukera berdinak ematen, iraganaz gaurtik; bai behintzat demokratikoki lehian norabideratuko badugu gure ibilbide historikoa etorkizun bat edo bertze bateruntz.

Inozoa nirea, bistan dena, baina zer egingen diot?

I. ERANSKINA: Roldan Jimenoren aurkezpena.

KONKISTAREN JUSTIFIKAZIO JURIDIKOA

UEU, 2011-10-8

Roldán Jimeno Aranguren

Nafarroako Unibertsitate Politikoa

Konkistaren justifikazio juridikoa

- 1. Konkista.
- 2. Okupazioaren justifikazioa: gerra justuaren tituluak eta igarotze-eskubidea.

Konkistaren justifikazio juridikoa

- 3. Gaztelako Koroara eranstea. Koroa bereganatzeko justifikazioa.
- 3.1. *Arrazoi justuaren bidezko gerra, nafar monarkia arrotza, oinordetzako eskubideak, borondatez entregatzearen ziozko lagapen librea*
- 3.2. *Aita santuaren konkista-tituluen balioa*
- 3.3. *Gaztelako Koroara eranstea*

Konkistaren justifikazio juridikoa

- 4. Nafarroako erresumak estatus politikoa mantentzen du
- 5. Gorteak mantendu eta indartu egin ziren
- 6. Oinordetza-legeak ez aplikatzea
- 7. Erdi Aroko planteamendu paktistaren iraupena. Foruak: Erregearen zin egitea
- 7.1. *Erdi Aroko planteamendu paktistaren iraupena*
- 7.2. *Foruak: Erregearen zin egitea*
- 8. Erresumako Zuzenbidea babesteko bitartekoak

II. ERANSKINA: Patxi Larrionen aurkezpena.

Nafarroako Konkista literaturan

Iruñea
11/10/08
UEU
Geronimo de Uztariz Institutua

Literatur generoa

- Nobela historikotik haratago

Periodizazioa

Monteanoren periodizazioa
(1512-1529)

Karlos III.aren erregealdiaren akabera
Nafarroako Henrike III.aren heriotza
(1425-1610)

Konkista poesian

- **Bereterretxeren kantoria**
- **Lauaxeta** (Amaiurko Gaztelu Baltza)
- **Xabier Lete** (Nafarroa Arragoa, Gu ezaren seme, Nafarroako azken erreginak Donapaleun)
- **JosAnton Artze** (Laino guztien azpitik...)

Konkista poesian

- **Joxe Azurmendi** (Manifestu atzeratua)
- **Jose Angel Irigaray** (Kondairaren ihauterian, Eta Baztanen)
- **Jon Mirande** (Jauregi hotzean, Eresi, Gudu-abestia)
- **Luis Garde** (I will sing a lullaby),
- **Joxemiel Bidador** (Oskiate, Garaño).

Antzerkia

- *Amayur*
Jon Etxaide, 1951
- *Nafarroako azken Mariskala*
Patxi Zabaleta, 1991
- *Hautsi da kristala*
Mattin Irigoien, 1997

Pastoralak

- *Berterretx*

1949 Urdiñarbe/Maule
1958 Maule. Etxaun-Iruri
1970 Ligi/Atarratze. Etxaun-Iruri
2005 Ligi. Pier Paul Berzaitz

Pastoralak

- *Matalaz*

1955 Eskuila. Etxaun-Iruri
1964 Parise. Etxaun-Iruri

- *De Treville*

1966 Iruri. Etxaun-Iruri

Pastoralak

- *Allande Oyhenart*

1985 Muskildi. Allande Bordaxar

- *Atharratze Jauregian*

1997 Atarratze/Otsagi. Pier Paul Bertzaitz

Besterik

- 1512-2012

Maule/Amaiur (2012)

Narratiba

- *Katebegi galdua*

Jon Alonso, 1995

- *Beñat Dardo*

Joxan Oiz, 2006

Narratiba

- "Erresuma eta Fedea" trilogia

Mailuaren odol, 2006

Izan bainintzen Nafarroako errege, 2009

Hirugarrena?

Aingeru Epaltza

Narratiba

- *Nafarroaren amets odoltsua (ipuina)*
Katearen begiak
Iñaki Petxarroman, 2003

Dohaikaitzdunak Zizurren illuna

- Arnaud Oihenart (1592-1667)
- Jose Moret (1615-1687)
- Hirugarrena?

KREDITUAK ETA BAIMENAK

Egileak: Eugenio Arraiza, Roldan Jimeno Aranguren, Santiago Leone, Emilio Majuelo Gil, Patxi Larrion, Patxi Abasolo, Joseba Asiron, Bixente Serrano Izko eta Floren Aoiz Monreal.

Data: 2011ko urria.

Baimena: Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 3.0.

Oharra: material hau ikastaroko ikasleen esku jartzen da Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 3.0 lizentziarekin. Lizentzia honekin edukia kopiatu, banatu eta erakutsi ahal izango dituzu, ondorengo baldintzak beteaz:

- Edukiaren jatorrizko egilea aipatu behar duzu.
- Lanaren kopia zein banaketa askea da.
- Lan eratorriak, jatorrizko egiletza aitortzeaz gainera, baimen (lizentzia) berdina izan beharko du.